

ARROTZA EUSKAL ATSOTITZETAN

Hizkuntza eta nazio guztietan atsotitzak tradizioaren ispilu dira.

Euskal atsotitzetan arrotzari buruzko ustea oso beltza agertzen da. Euskaldunok geure etxea oso maite izan dugu eta kanpoan egotea kaltetzat eta galgarritzat jo izan dugu.

Garai baten euskaldun asko bizimodu bila Ameriketara joaten zen. Familiak handiak ziren eta seme zaharrenak oinordekotza edo maiorazkoa jasotzen zuten. Semeren bat fraide joaten zen eta besteak Ameriketara.

Ez zuten askok ordea sinesmen handirik Amerikaz.

“Ameriketan ere zakurrak ortotsik” esaten zuten gure gurasoek. Ameriketan ere aberats izateko lan gogor egin behar.

Eta kanpoan euskalduna kanpotar, hau da, arrotz izango zela uste zuten gure arbasoek.

Geure artean beharbada gai honi buruz ezagunena den atsotitzak hori erakusten du:

“Atzerri, otserri”. Erbestean otsoen artean ibiliko zara.

Bere etxean ez dagoena beti hangoen azpian ibiliko da. Bere burua ez du bere betean erakutsiko.

Hara atsotitz ezagun hau:

“Kanpoan dagoenak ezin bere burua xuritu”.

Erbestean zerbait txarrik gertatzen bada, aurreneko susmargarria arrotza. Eta maiz ezingo du zintzoa dela erakuts.

Euskal Herrian bertan, aldiz, arrotzari mesfidantzaz begiratzeko zitaion.

Orain aipatuko ditudan atsotitzok mesfidantza hori garbi asko adierazten dute.

Refranes y Sentencias de 1596 liburuan hauxe irakurtzen dugu: "Arraina eta arrotza heren egunaz karatzez kanpora deragotza". Arraina eta arrotza hiru egun igaroz gero, nazkagarri bihurtzen dira.

Euskaldunek apaizak ere bertakoak nahi zituzten. Bertako apaizek hobeki ulertzen dituztela herritarren gorabeherak. "Tokian tokiko gisa".

Etxahun koblakari sonatua maiz arrangurutzen zen Zuberoara manex apezak, hots, Lapurdikoak eta Nafarroa Beherekoak igortzen zituztelako.

Eta Euskal Herrira Espainiatik etorri diren fraide eta mojak ia beti euskararen kontra ibili dira. Egungo egunean ere bai.

Honatz esaera: "Arrotz apez, ipur zorrotz".

Arrotzei buruzko beste esaerak ere denak dira garrantzak:

"Arrotz gaitza (txarra) bere horekin (zakurrekin)"

"Arrotza bekaitz arrotzaren"

"Arrotzak mihia ezti eta eskua latz".

Ez hori bakarrik. Bada beste bat oso gogorra, noiz eta behin gertatu dena:

"Etorriko da kanpoko, aterako dauena etxekoa".

Kanpotik datozen gehienak jatorrak izan litezke, baina baina batzuk gure hizkuntza eta kultura desagiten saiatu dira. Gure etxera etorri eta beraiek nagusi jarri nahi.

Eta euskaldunari aholku hau ematen zaio:

"Egik ongia lehenik eurei, gero, ahal baduk, atzei (arrotzei)".

Horren antzekoa da beste hau:

"Lenengo etzekoa eta gero erbestekoa".

Bestaldetik, euskalduna herri maitea izan da eta da. Eskerak horri oraindik ere bizirik gaude. Bere izatea, bere hizkuntza, bere kultura maite izan ditu.

Bere gauzak ez ditu saltzeko.

Horrela ulertu daitezke esaerok:

"Etxeko ogia, kanpoko biskotxari nagusi"

"Kanpoko ogi xuria baino, etxeko ogi beltza hobe"

"Kanpoko alaba zak, etzekoa gorde zak"

"Etxeko txarra obe, kanpoko ona baño"

Bukatzeko: euskaldunoi nola begiratzen digute atzerrian?

Aspalditik urtero New Yorken bi hilabete terdi ematen ditut udaroan.

Orain urte asko Bostgarren Avenidako Barnes and Nobel liburudenda ezagunean nengoen eta esaera zaharren liburu bat aurkitu nuen: *The Penguin Dictionary of Proverbs*.

Badu atal bat: People and Places. Atal horretan frantsesei, italianoei, espainolei, alemanei ... buruzko esaerak daude. Denak beltzak, denak laidogarriak.

Espainolei buruz, adibidez, hauxe esaten du:

"Nothing ill in Spain but that which speaks"

"Espainian mintzodun guztiak txarrak dira".

"The Spaniard is a bad servant, but a worse master".

"Espainiako zerbitzariak txarrak dira eta nagusiak txarragoak".

Beste nazioetakoei buruzkoak ere horrelakoxcak dira.

Eta hara, horko esaerak gaiztoak izan arren, zer irakurtzen dugun: "The Basque is faithful". "Euskalduna hitzekoa da".

Nire poza hori irakurri nuenean! Esaera zaharrek esperientzia erakusten dute. Eta ingelesek euskaldunok hitzekoak gine-la ikusten zuten.

Izan ere, Erdi Aroan ingelesek eta euskaldunok harreman estuak izan genituen, gure burdinolak zirela eta. Euskal Herriko ezpatak, erremintak eta lanabesak oso entzutetsuak ziren.

Eta ingelesek hauxe ikusten zuten: euskaldun batek esaten bazien, "Orain ezin dizut ordaindu. Hilabete barru ordainduko dizut", euskaldunek hitza betetzen zutela.

Argentinan ere "palabra de vasco", esaten zen, lasai egoteko, agindua beteko zuela adierazteko. Uste hori Ernesto Sabatoren "Sobre héroes y tumbas" eleberrian suma liteke.

Etorkizunean ere horrela izango garen itxaropena eduki genezake. Ingelesek beti esan dezatela: The Basque is faithful.

Hau da, bete dezagun beste atsotitz batek esaten diguna: "Euskalduna euskaldunago, arrotzek estimatuago".

Beste hitzez esanda: euskalduna euskaraz dakiena da. Zenbat eta euskaraz gehiago egin, euskaldunago. Eta zenbat eta euskaldunago, kanpotarrek errespetu handiago izango digute. Kanpotarrek aintzakotzat har gaitzaten, ordea, lehenik geuk geure euskalduntasuna aintzakotzat hartu behar dugu, euskara nonahi eta noiznahi erabiliz.

Gotzon Garate.